

Urteko/ikasturteko programazio didaktikoa *Programación didáctica anual/de curso*

ikastetxea: <i>centro:</i>	Uribe Kosta BHI	kodea: <i>código:</i>	014153
etapa: <i>etapa:</i>	Batxilergoa	zikloa/maila: <i>ciclo/nivel:</i>	1
arloa/irakasgaia: <i>área / materia:</i>	World Literature / Literatura unibertsala		
diziplina barruko oinarriko kompetentzia elkartuak <i>competencias disciplinares básicas asociadas</i>	1. Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako kompetentzia 2. Teknologiarako kompetentzia 3. Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia 4. Arterako kompetentzia 5. Kompetentzia motorra		
irakasleak: <i>profesorado:</i>	Roberto Fernández	ikasturtea: <i>curso:</i>	18-19

Zeharkako kompetentziak / *Competencias transversales:*

1. Literatura-testuak edo pasarte garrantzitsuen bitartez informazioa tratatu eta komunikazio ekintza bezala hartu.
2. Literatura-testu osoak edo pasarte esanguratsuak irakurtzearen eta interpretatzearen bitartez Giza eta arte-kulturarako gaitasuna landu.
3. Literatura-testu osoetatik edo pasarte esanguratsuetatik abiatuta, literatura unibertsala osatzen duten mugimendu estetikoetako generoen eta idazlan eta egile garrantzitsuenen ezaugarriak kontuan harturik, gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna landu.
4. Idazlan esanguratsuak irakurriz eta alderatuz, historian zehar behin eta berriz agertzen diren gaiak identifikatzearen eta haiei buruz jardutearen bitartez, ikasten ikasteko gaitasuna landu.
5. Literatura unibertsaleko lanen eta bestelako arte adierazpenen (musika, zinema...) arteko harremanak aztertzearen bitartez giza eta arte-kulturarako gaitasuna landu.
6. Literatura unibertsaleko lanak ulertzeko, beste irakasgai batzuetan literaturaz ikasitakoa modu autonomo eta kontzientean erabiltzearen bitartez giza eta arte-kulturarako gaitasuna landu.
7. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak eta bibliografia-iturriak modu kritiko, autonomo eta eraginkorrean erabiltzearen bitartez giza eta arte-kulturarako gaitasuna landu.
8. Literatura-testuen gaineko ariketa akademikoak egiteko eta ezagutzak eskuratzeko behar diren jardueretan parte hartzearen bitartez ikasten ikasteko gaitasuna landu.
9. Plangintza bati jarraiki, ahozko nahiz idatzizko hitzaldiak prestatzearen bitartez hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna landu.

10. Literatura-testu kanonikoak bakarka nahiz taldeka irakurriz gozatzearen bitartez norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna landu.

11. Literatura-testuak kritikoki balioestearen bitartez norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna landu.

helburuak <i>objetivos</i>	ebaluazio-irizpideak <i>criterios de evaluación</i>
<p>1. Literatura-testuak edo pasarte aipagarriak irakurtzea eta interpretatzea, irizpide propioarekin, autonomiaz irakurtzen joateko eta literatura gero eta hobeto irakurtzeko.</p> <p>2. Literatura-testu osoak edo pasarte aipagarriak irakurriz ezagutzea Literatura Unibertsaleko mugimendu estetiko eta lan nagusien ezaugarriak, haiek sortu ziren testuinguru historiko-sozialekin eta kulturekin lotzeko.</p> <p>3. Lan aipagarriak irakurriz eta konparatuz identifikatzea eta iruzkintzea Literaturaren Historian errepikatzen diren gaiak, kultura guztietan berdinak diren kezka, sinesmenak eta ametsak ezagutzeko.</p> <p>4. Literatura Unibertsaleko lanen eta beste edozein arte-adierazpenen arteko harremanak aztertzea, adibideen bitartez, batetik bestera dauden antzekotasunak eta desberdintasunak ezagutzeko.</p> <p>5. Gogoeta eginez eta modu egokian parte hartzea literatura ezagutzeko jardueretan eta literatura-testuei buruzko lan akademikoetan.</p> <p>6. Ahozko, idatzizko eta ikus-entzunezko testuak sortzea, ikaskuntzaren arlokoak, gai literarioei buruzkoak, bibliografiak eta IKTak modu kritikoan, autonomoan eta ganoraz erabiliz, zer literarioa hobeto ulertzeko.</p> <p>7. Literatura-testu kanonikoak banaka edo taldean irakurtzen gozatzea, norberaren esperientziari zentzua emateko, mundua ulertzeko eta sentsibiltate estetikoan aurrera egiteko.</p> <p>8. Literaturaren adibideak modu kritikoan balioestea, haietan ezagutu ahal izateko errealitatea azaltzeko kreaio eta sentimendu indibidualak nahiz kolektiboak.</p>	<p>1. Literatura-testuak irakurtzea, eta ohartzea literatura mundua ezagutzeko eta identitate pertsonala, kulturala eta soziala eraikitze bidea dela.</p> <p>2. Zenbait garaitako literatura-lan labur eta pasarte adierazgarriak aztertzea eta iruzkintzea, eta, horretan, edukia garaian garaiko testuinguruaren, testuari dagokion mugimendu estetikoaren, generoaren eta egilearen arabera interpretatzen jakitea.</p> <p>3. Literaturaren historian behin eta berriz errepikatzen diren gai, topiko, mito eta arketipoen eraginaz jabetzea, eta horiek guztiek kultura unibertsalari egindako ekarpenez ohartzea.</p> <p>4. Literatura Unibertsaleko lanik adierazgarrienak bestelako arte-adierazpenekin lotzea, eta, horretan, espresibide estetikoaren arteko antzekotasunez eta desberdintasunez jabetzea.</p> <p>5. Irakurri dituen literatura-lanei buruz, bai ahoz eta bai idatziz, azterketa kritikoak egitea, eta, horretan, iritzi pertsonalak ematea.</p> <p>6. Solasaldi, debate eta antzeko jardueretan parte hartzea, eta horien bidez bere ezaguera literarioetan sakontzea eta irakurritako testuak sakonago ulertzea.</p> <p>7. Aldez aurretik egindako eskema bati jarraituz, ikus-entzunezko baliabideen eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien laguntzarekin literatura-lan, egile edo garai bati buruzko ahozko nahiz idatzizko aurkezpen bat egitea.</p>

--	--

ARAZO EGOERA [Arazo egoera bakoitzaren azken ataza, arazoa eta testuinguararen daturik errelenbanteenak agertuko dira.].

SITUACIÓN PROBLEMA [Incluirá los datos relevantes del contexto, el problema y la tarea final de cada una de las situaciones.].

Mapping *The Catcher in the Rye*

EDUKIEN SEKUENTZIA [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta...].

SECUENCIACIÓN DE CONTENIDOS [organización en períodos, unidades didácticas, proyectos, núcleos de aprendizaje...].

1. urtelaurdenean:

Antzinarotik Aro Modernora:

- Mitologiak literaturaren hastapenetan.
- Literatura biblikoaren, greziarraren eta latindarraren aurkezpen laburra.
- Erdi Aroko epika eta ziklo arturikoaren sorrera.
- Errenazimentua eta klasizismoa: testuinguru orokorra. Munduko aldaketak eta gizakiari buruzko ikuspegi berria.
- Maitasunaren lirika: trobalarien olerkiak eta Dolce Stil Nuovo. Petrarkaren Kantutegiak ekarritako berrikuntza.
- Prosazko narrazioa: Boccaccio.
- Europako antzerki klasikoa. Ingalaterrako isabeldar antzerkia.
- Argien Mendea: Ilustrazioa. Entziklopedia.
- Ilustrazioko prosa.
- Europako XVIII. mendeko eleberria. Cervantesen eta pikareskaren ondorengoak.

2. urtelaurdenean:

15. Aro Garaikidea (XIX. mendea)

- Erromantizismoa: kontzientzia historikoa eta zientziaren zentzu berria.
- Poesia erromantikoa.
- Eleberri historikoa.

- XIX. mendeko bigarren erdia: narratiba errromantikotik errealismora Europan.
- XIX. mendeko Europako eleberrigile garrantzitsuenak.
- AEBko literatura handiaren sorrera. Ipuinaren berpizkundea.
- Poetikaren modernitatea: Baudelaire-etik simbolismora.
- Europako antzerkiaren berrikuntza.

16. Aro Garaikidea (XX. mendea)

- XIX. mendeko pentsamoldearen krisia eta mende amaierako kultura.
- Filosofia-, zientzia- eta teknika-alorreko berrikuntzak, eta haien eragina literaturan.
- Eleberririk idazteko bide berri baten sendotzea.
- Europako abangoardiak. Surrealismoa.

3. urtelaurdenean:

- AEBko literatura handiaren gailurra. Belaunaldi galdua.
- Absurdoaren antzerkia eta konpromisoaren antzerkia.
- Hispanoamerikako literatura.
- Hedabideak eta teknologia berriak: gaur egungo literaturan duten eragina.

METODOLOGIA [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denborekin antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik].

METODOLOGÍA [organización de contenidos, tipo de actividades, recursos didácticos, agrupamiento del alumnado, organización de espacios y tiempos, papel del profesorado y el alumnado... desde una perspectiva inclusiva].

Eraginkorra beti: ahozko eta idatzizko testuen bitartez.

Asko baloratuko da eguneroko lana eta gelako jarrera.

Halaber asko baloratuko dugu banakako nahiz taldekako lana.

Gaitasunak lantzeko asmotan, praktika da irakasgai honen ardatza. Horrela, ariketak egin eta prestatuko dituzte ikasleek eta idazlanaren, eztabaidaren eta irakurketaren bitartez landuko dute literatura.

1. Aurrezagutzaren printzipioa: Eskolara baino lehen eta eskolatik at ikasitako gauza asko dago ikaslearen altxorrean, areago mundu mugikor eta aldakor honetan. Dakitenetik abiatuz eta elkarriketa sortuz abiatu beharra dago, funtzio hori betetzera dator ataria jarduera.

2. Egokitzapenaren printzipioa: Hezkuntzaren izaera hezitzailea indartu egin behar da. Ikasleak gauzak egiten jakiteko prestatu behar ditugu, hau da errealitatean aplikatzen den jakintza,

askotariko testuinguruetara egokitzeko aukera eman eta izaera integratzailea duena (jakintzak, prozedurak eta jarrerak). Gure ikasleek jakin eta egiten jakin behar dute, jakintza eta ekintza uztartzuz.

3. Funtzionaltasunaren printzipioa: Bizitzarako balio dion zerbait bezala hartu behar du ikasleak eskolako jarduna. Horregatik du halako garrantzia zertarakoak. Beraz, haien errealitatean eta interesetan oinarritzen diren jarduerak proposatzen saiatu gara.

4. Komunikazio printzipioa: Hizkuntza elkarrekintzan erabiliz eta besteekin gauzak egiteko erabiliz garatzen da. Komunikazioa izango da irakaskuntza-ikaskuntza estrategia nagusia, prozesuaren giltzarria hizkuntzaren erabilera esangurutsuak eta eraginkorrak erakitzean datza. Ikasleek hainbat eratako komunikazio-egoeren aurrean aritzeko baliabideak lor ditzaten testu-genero mota desberdinak landuko dituzte, bere bizitza pertsonalean eta profesionalean beharko dituztenak.

5. Bestalde, ahozko eta idatzizko testuen bitartez, metodologia eraginkorra erabiliko dugu. Eguneroko lana asko baloratuko dugu, baita banakako zein taldeko lana ere. Ikasleen motibazioa bultzatuko dugu, helburuak jakinaraziz, zein negoziazio jarduerak proposatuz, besteak beste.

Ikaskuntza autonomia izaten ahaleginduko gara, eta ikasitakoaren funtzionaltasuna eskola esparrutik kanpo bultzatuko dugu.

IKTak gure metodologian garrantzi handikoak dira, beraz, blogak, web orriak...ea erabiliko ditugu. Honetaz gain, zenbait proiektu, (Normalkuntza, Agenda 21, Genero Berdintasuna...) gure egunerokoan integratuko ditugu.

Gure [Hobekuntza Planean](#) eta [Hizkuntza Proiektuan](#) adierazten den bezala, irakurmena eta entzumena lantzeko beren-beregiko atazak landuko ditugu. Ataza horiek prestatzeko formakuntza lan-saio batzuk antolatuko ditugu, eta bertan landutakoa ikasturtean zehar ikasgeletan gauzatuko dugu.

Idazmena zuzentzeko irizpide bateratuak, mintegi guztiok azterketetan erabiliko duguna:

HIZKUNTZA PROIEKTUA - ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK		
ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK	% 100	% 0
ITXURA ETA ANTOLAKUNTZA	-Paragrafoak ondo antolatuak. -Garbi eta txukun dago -Izenburu egokia -Orri bazterrak daude	-Paragraforik ez dago -Narratsa. -Izenbururik ez dago -Orri bazterrik ez dago.
KOHERENTZIA	-Informazio egokia da helbururako. -Testu mota errespetatzen da -Kontraesanik eta errepikapenik ez dago	-Informazioa ez da egokia helbururako -Testu ezaugarriak ez ditu errespetatu -Kontraesanak eta errepikapenak daude
KOHESIOA	-Paragrafo 1 ideia 1 -Ideiak ondo lotuta daude (lokarriak/ antolatzaileak) -Puntuazioa zuzena da	-Paragrafo nahasiak -Ideia solteak eta lokarriak ez -Puntuazioa desegokia da

ZUZENTASUNA	-Ortografia, lexikoa eta gramatika.	-Akats nabarmenak: ortografia, lexikoa, gramatika
HELBURU KOMUNIKATIBOA	-Idazlanak mezua argi eta ondo transmititzen du. Testua ondo landua da.	-Idazlanak ez du mezua ondo transmititzen. Testua landu gabe dago.
BETEBEHARRAK Lana orri zuri batean entregatuko dute. Lana epe barruan entregatuko dute.		

Irakasgai hau ez dago bakartua eta ikastetxeko egitasmoi lotuta dago. Hona hemen egitasmo horietan:

PROIEKTUEI BURUZKO OHAR BATZUK

_ **Normalizazioa:** Euskararen erabilera bultzatzeko ekimenak eta jarduerak landuko ditugu, euskararen erabilera sustatzen, zaintzen, indartzen eta erabiltzen.

_ **Irakurketa Plana:** Arloko testu espezifikoak ulertzeko jarduerak landuko dira, ikaskuntza-jardunaren oinarritzko edukia izan dadin.

_ **HTB:** Gure hobekuntza planean eta Hizkuntza proiektuan adierazten den bezala, irakurmena lantzeko berenberegiko atazak egingo dira. Halaber, idatzizko testuak zuzentzeko mintegi

guztien artean adostutako **txantiloia** erabiliko da.

_ **Hezkidetza (Aniztasuna):** Sexuen arteko eskubide berdintasuna, edozein eratako bereizkeriaren aurreko gaitzespena eta kultura guztien begirunea modu eraginkorren gauzatu.

Guztien partaidetza positiboa sustatu.

_ **Bizikasi:** "Arloko ekintzetan, hezkuntza komunitateko kide guztien arteko harreman positiboak eta elkar bizitza osasungarria eraikitzen lagunduko da."

_ **Agenda 21:** Kontsumoaren arduratsua bultzatu eta ikastetxe ingurunearen alde lan egiteko konpromesua baloratuko da.

_ **IKT:** Gure ikasleek bere garapenerako behar dituzten gaitasun digitalak eskuratzeko informazio bilatu, lortu, prozesatu eta komunikatu beharko dute (informazio hori jakintza bilakatzen).

<p>EBALUAZIO-TRESNAK [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioa, kontratu didaktikoa...]</p> <p>INSTRUMENTOS DE EVALUACIÓN [pruebas orales y escritas, cuestionarios, trabajos individuales y en grupo, escalas de observación, listas de control, cuaderno de aula, portafolio, contrato didáctico...].</p>	<p>KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK [ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa]</p> <p>CRITERIOS DE CALIFICACIÓN [peso y valor de cada instrumento de evaluación].</p>
<p>Guk testuliburuak erabiliko dugu eta, horrez gain, Selektibitatean edo unibertsitatera sartzeko proban eskatu dituzten sei irakurgaiak landuko ditugu ikasturtean zehar. Testuliburuak Hautaprobak sartuko den gaiak erakutsiko dizkie ikasleei eta irakurraiek, hiztegia eta sintaxia lantzeko balio izateaz gain, sei idazle handiren obra argituko diete. Gainera, behin eta berriro ikasleek literaturako gai nagusiak ikusiko dituzte film eran.</p> <p>Oso garrantzitsua izango da Classrooma; hemen egongo dira agerian ikasleek egin beharko dituzten lanak. Lan egiteko tresna nagusia izango da, beraz.</p> <p>Zelako lanak izango dira? Funtsean testuak irakurri, gozatu eta komentario kritikoa egiteko lana.</p>	<p>Irakasgai honetan portzentaia haxe erabiliko dugu ikasleei nota ipintzeko:</p> <p>1. Azterketak: 4 puntu</p> <p>Asko jota. Ebaluazio bakoitzeko 2 egongo dira eta, alde batetik, hautaprobea itxura edukiko dute eta, bestetik, komentario kritikoa.</p> <p>2. Proiektuak: 4 puntu: Liburuak irakurri, ahozko aurkezpenak, komentarioak egin...</p> <p>3. Jarrera, ikasgelako eta etxerako lanak...: puntu 2</p> <p>Classroom-ean egindakoa gehi ikasgelan azalduko jarrera...</p>
<p>EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errehabilitazio-sistema...].</p> <p>CONSECUENCIAS DE LA EVALUACIÓN [medidas de refuerzo y ampliación, adaptaciones organizativas y metodológicas, análisis de resultados, revisión de la planificación didáctica, sistema de recuperación...].</p> <p>Ikasle batek froga edo lanen bat gaituzten ez duenean, berau gaituzteko beren beregiko lana egin beharko du aipatutako froga edota lana berreskuratzeko.</p> <p>Ikasle bat, ikasturte osoko saioen %20ra justifikazio barik azaltzen bada, ebaluazio jarraia izateko eskubidea galduko du, eta ondorioz, irakasgaia ezohiko frogan aurkeztu eta gaituzte beharko du.</p>	